

# DYA Gipuzkoak 1.500 esku-hartze baino gehiago egin ditu guztira, konfinamenduaren egunetan

Kronika - Erredakzioa 2020-06-18 00:00



## DYA GIPUZKOA



Alarma-egoeran eskainitako zerbitzuen artean, honako hauek nabarmendu dituzte: elikagaiak eta botikak jaso eta banatzea, instalazioak desinfektatzea, COVID-19 testak egitea, eta maskarak eta biserak banatzea, besteak beste.

2020ko martxoaren 14an Espainiako Gobernuak alarma-egoera ezarri zuenetik, gaurko egunera bitarteko datuak argitaratu ditu DYA Gipuzkoak, azken balantze gisa. 200 boluntariok baino gehiagok 40.000 kilometro egin dituzte lurraldean, 1.500 esku-hartze baino gehiago egiteko. Eta hori guztia herritarren laguntzari eta ekarpenei esker egin ahal izan da.

DYAk bere jarduera bideratu zuen Gipuzkoako gizartearentzat erabilgarri eta garrantzitsu izaten jarraitzeko, eta herritarren eskura jarri zituen bere baliabideak eta boluntarioak. Konfinamenduaren lehen egunetatik, bere leloa egoerara egokituz, DYA Gipuzkoak mezu hau zabaldu zuen: *Gelditu zaitetz eta lagunduko dizugu.*

Elkarteak bere material eta giza baliabide guztiak prestatu zituen, bere boluntarioek zerbitzu guztiak egin ahal izateko behar bezala hornituta eta babestuta.

La hiru hilabete hauetan, DYAk laguntza eskaera eta jarduera asko egin ditu. Egunean 24 orduz Koordinazio Zentro bat duenez, eskaera eta dei guztiei erantzun die, eta nahiz eta alarma-egoeran eta konfinamenduan egon, egun bakar batean ere ez dio funtzionatzeari utzi.

DYA Gipuzkoak lankidetzeta estua izan du bere esperientzia eta baliabideak behar izan dituzten erakunde eta GKEekin, herritar guztiei laguntza helarazteko eta beharrei erantzuteko. Besteak beste, DYAren laguntza eskatu dute Eusko Jaurlaritzak, Osakidetzak, Babes Zibilak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Udalak, Errenteriako Udalak, Oiartzungo Udalak, Euskotrenek, Dbusek, Suhiltzaileek, Botikarien Elkargoak, Caritasek edo Elikagaien Bankuak.

[Gizartea Astigarraga Hernani](#)

Erantzun

Epea zabalik AEK euskaltegietan, 2020-

Hitzaldia gaur, KZguneaTIC bidez

Ekainaren 17ko datuak: Koronabirusa Euskal Herrian

Ikusgai, gaur arte hondakin plastikoz egindako figurak